

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioaren Jauregian, 1984.eko Maiatzaren 25ean egin du Euskaltzaindiak arratsaldeko 4etan bere hileroko bilera. Bildu dira: L. Villasante, J. Haritschelhar, P. Altuna, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, L. Mitxelena, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzainak. J. A. Arana, M. Atxaga, M. Azkarate, R. Badiola, P. Charriton, J. Etxaide, J. M. Etxebarria, P. Goenaga, M.P. Lasarte, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, X. Mendiguren, K. Otegi, P. Uribarren, M. Zalbide eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohizko otoitzarekin hasi da batzarrea.

Apirileko batzar agiria onartu da.

Manex Erdozaincy-Etchart euskaltzain urgazlearen hil berria eman du Euskaltzainburoak, eta zenduaren aipamenean euskaltzale gazte honen idazlan, ekintza eta merezimenduak azaldu ditu.

Migel Anjel Astiz kazetari nafarra ere itzali zaigula adierazi du gero Villasante jaunak eta euskaltzain urgazle honen aipamen berezia datorren batzarrean egingo da.

Goizeko lanaren berri

Eskuartean dugun maileguzko hitzen arazoan, apirileko batzarrean eskatu zitzaion erabakigai laburtua aurkeztu du A. Irigoyen euskaltzainak. Eztabaida luze eta ohar zehatz batzuren ondoren, honela gelditu da gaiari dagokion azken erabakia

“Mailegu zaharretarako *j* eta baita ere *i* ukitu gabe, orain mailegatzen diren hitzetan *g* grafia hobetsiko da: *biologia* (biologo), *geografia* (geografo), *filologia* (filologo), *dramaturgia* (dramaturgo). Jakina da *g* grafema /g/ bezala irakurri ohi dela euskaraz edozein bokalen aurrean.

Bestaldetik, erdaretan *i/j/y* agertzen denean bide honi jarraituko zaio:

1) Bokalkarteetan beti *i* idatziko da. 2) Gainerako kasuetan silaba hasieran baldin badago, beti *j*, *jaiegun* eta *jaia* hitzetan bezala.

Maileguzko hitzen hurrengo puntua, $x/(k)s/ts$ arazoei dagokiona alegia, erabakigaitza aztertu duen batzordeñoaren izenean F. Ondarra batzordeburuak aurkeztu du. Gaiak sortzen dituen istiluengatik eta eztabaidatzeko denborarik ez zegoelako, beste aldi baterako utzi da erabakia finkatzeko lana.

Azken orduko gaiak

J. Haritschelhar jaunak Europako Kontseiluak hizkuntza ttipiei buruz egin duen bileraren berri eman du, J. L. Lizundia-rekin biak egon dira han Euskaltzaindiaren izenean, beste 70 hizkuntzen ordezkariarekin batera. Hizkuntza hauek dituzten esku-bideen adierazpena egin nahi dela, esan du, hiru puntu nagusitan lekuan-lekuko hizkuntza zabalduenaren berdintasuna eskatuz: Irakaskintzan, Komunikabideetan eta Administralgoan alegia.

Gasteizko egoitza berrian sartu direla jakinerazi du E. Knörr, Arabako gure ordezkariak. Etxe honetan hutsik dagoen beste solairuan Hiztegi Orokorren Batzordeak lan egiteko bidea dagoela, aipatu du gero. Koldo Mitxelena ikusten egon da eta tokia atsegin zaiola esan du. Hori kontuan dela, Arabako Foru Diputazioak datoren irailerako prestatuko duela esan omen du. Hiztegi lanak beste nunbait hasiko dituzte bitartean. Etxe horretan egongo garen talde guztion sarrera-aurkezpen ofiziala udazkenean batera egin litekeela ere aipatu da.

Zarauzko udalaren eskariz berek antolatutako Lizardi sariaren epai mahairako, Literatur batzordearen buru den F. Krutwig izendatu du Euskaltzaindiak.

Batzordeen berri

Gramatika. Patxi Goenagak gramatika batzordearen lanak zertan diren, adierazi du. Gertu daukaten txostenaren orrazketa aipatu du eta erabilitako liburu kopurua. Hemezortzi bat lanen laburpenak eskuratu dituzte eta beste zenbaiten zai daude. Atzerriko gramatikalariekin harremanetan jarraitzen dutela, esan du.

Antolakizuna. J. L. Lizundiak Iruñeko Kongresoaren antolakizun batzordea Maiatzaren 11an bildu zela, esan du. Iruñeko agintariekin tokiaz azken erabakia zehaztea bakarrik gelditzen da. Orri buruetako idazkia, kartelak, dominak eta prentsa adierazpenen ardura bideratuak zirela aditzera eman du.

Txostenak

Euskaltzainburuak ongi-etorria eman die gaurko txostenak dakartzaten bi euskaltzain urgazle berriei.

J. M. Etxebarriak, agertu berri den *Atlas Etnolingüístico de Euskal Herria* izeneko lanari oharrak egin dizkio bere txostenean. Itaunketaren eredu aipatu du, mintzaren mugaketa-eza, azterle batzuren egoera arraroa eta traskripzio fonetiko minimo baten hutsunea salatu du, besteak beste. Txostengilearen izenarekin emandako lanen erantzunkizuna zenbatetarainokoa izan daitekeen esan du azkenik, jokabide ez hain txalogarri baten eredu.

Mikel Zalbide mintzatu da gero, “Hiztegigintza hitz-eraketa: egindakoak eta egitekoak” gaitzat harturik. Hitz-konposaketaren zenbait arazo agertu ditu, ohizko joeren eta joera berri batzuren arteko ondorioen aldea azpimarratuz. Eztabaida bizia sortu du txostenak.

Eta besterik gabe amaitu da gaurko batzarrea.

Euskaltzainburua
Fr. Luis Villasante

Idazkaria
Jose M.^a Satrustegi

* * *

Euskaltzaindiak argitaratu duen Azkue-ren hiztegia aurkeztu da berehala. L. Villasante, “mardula, ezaguna eta estimatua” dela Azkue zenaren lana aitortuz, mintzatu da lehenik. Euskal idazleek, hizkuntzalariek eta ikasiek estimu haundian duten liburua. Larramendiren bidetik baztertuz, berri-berritik egin zuela bere hiztegia, esan du. Hainbeste hiztegi sortu zaigun une honetan, Azkuerenak ez duela bere baliorik galdu.

“Legortea edo zaparrada” izan ohi dugula esanez, hasi du L. Mitxelenak bere hitzaldi laburra. Hiztegien aldi dugula oraikoa, baina ugaritasuna hobe dela hutsa baino. Zergatik argitaratzen den berriz hiztegi hau? Lekukotasuna da bere ezaugarri bereziarena, orain jasotzerik ez legokeen gauza asko jaso bait zuen bere denboran egi-leak. Ahozkoak du, batez ere, lan honetan garrantzia.

Ia larogei urteren buruan bir-argitaratzen den hiztegi honek, L. Villasanteren aurkezpena darama. L. Mitxelenak egina zuen “Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue” lana dator gero, eta lan honetan aipaturiko hitzen zerrenda, eraskin.